

2023ko maiatzaren 25a. Ohiko Batzar Nagusia / **Resumen Asamblea General Ordinaria. 25 de mayo de 2023.**

2023ko maiatzaren 25ean egindako Batzar Nagusian Kontseilu Errektoreak proposatutako erabaki guztiak onartu ziren, eta Errekurtso Batzordea, Jagoletza Batzordea eta Kontseilu Soziala berriro ziren.

Alderdi esanguratsuenak azpimarratuko ditugu:

EROSKI Koop.E.ren urteko kontuak

2023ko urtarrilaren 31n itxitako 2022ko ekitaldiari dagozkion Eroski Koop.E.ren urteko kontuak eta kontu bateratuak onartu ziren.

Informazio ez-finantzarioaren egoerari buruzko memoria.

2022ko ekitaldiari dagokion Informazio ez-finantzarioaren egoerari buruzko memoria onartzea erabaki da, abenduaren 28ko 11/2018 Legean ezarritakoaren arabera.

2022ko Emaitzen Banaketa.

Proposatutako emaitzen banaketa onartu da, erabaki honen bidez:

ERABAKIA:

1) *"Estatutu Sozialetan adierazitakoaren arabera, 2022ko ekitaldiko emaitza positiboen banaketa onartzea -emaitza horien zenbatekoa 32.065.203,39 euroko zenbatekoa da-, honela:*

SOBERAKIN GORDINAK:

2023ko urtarrilean ordaindu ziren funts propioen parte diren Eroskiren Mendeko Finantza Ekarpenen (EMFE) interesak ordaintzea.

2.814.885,47 €

SOBERAKIN GARBIAK

Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak konpentsatzea

29.250.317,92 €

Aurreko erabakia onartu ondoren, emaitzen banaketa honela islatuko da:

EROSKI Koop.E.ren EMAITZEN BANAKETA	2022
SOBERAKIN GORDINAK: <i>2022ko urtarrilean ordaindu ziren eta funts propioen parte diren Eroskiren Mendeko Finantza Ekarpenen (EMFE) interesak ordaintzeko.</i>	2.814.885,47 €

SOBERAKIN GARBIAK: <i>Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak konpentsatzeko.</i>	29.250.317,92 €
Ekitaldiko emaitza	32.065.203,39 €

2023rako eta 2024, 2025 eta 2026ko ekitaldietako auditoreak izendatzea.

Onartu da KPMG beste urtebetez berritzea Eroski Koop.E-ren kontu indibidualetarako eta bateratuetarako. Erabakia Auditoria eta Betetze Batzordeak (Kontseilu Errektorearen organo delegatuak) proposatuta egiten da, haren legezko eta estatutuetako betebeharrak betez.

Era berean, Kontu Auditoretzaren uztailaren 20ko 22/2015 Legean kontu-auditorearen txandakatzeari buruz ezarritakoa kontuan hartuz eta dagokion lizitazio-prozesuaren ondoren, erabaki da PricewaterhouseCoopers Auditores S.L. enpresa izendatzea kontu-auditore gisa 2024, 2025 eta 2026ko ekitaldietarako.

Baja eman duten bazkideen ekarpenak itzultzeko erabili beharreko gehieneko zenbatekoa zehaztea eta haien itzulketa egitea.

Kontseilu Errektoreak zehaztutako kaudimen-atalasea eta likidezia-atalasea kontuan hartuta, Batzar Nagusiak 8 milioi euroan finkatu du erreferentzia-aldian kooperatiban baja hartu duten bazkideen ekarpenak itzultzeko erabiliko den zenbateko osoa.

Era berean, erabaki du 2023ko maiatzaren 18a baino lehen baja eskatu duten bazkideen ekarpenak ez itzultzea, 8 milioi eurora arteko diferentziagatik eta eskatutako ekarpenengatik.

ERABAKIAK:

- 1) "2022ko maiatzaren 26an egindako Batzar Nagusiaren ondoren kooperatiban baja eman duten bazkideen ekarpenak eta Kontseilu Errektoreak 2023ko maiatzaren 18ra arte adostu dituenak itzultzeko erabiliko den gehieneko zenbatekoa 8.000.000 (zortzi milioi) €-tan finkatzea".
- 2) "2022ko maiatzaren 26an egindako Batzar Nagusiaren ondoren kooperatiban baja eman duten bazkideei eta Kontseilu Errektoreak 2023ko maiatzaren 18ra arte adostu dituenek egindako ekarpenak itzultzea erabakitzea, Eroski Koop.E-ren Estatutu Sozialen 23. artikuluan ezarritakoaren arabera, 8.000.000 euroko zenbatekora arte guztira".
- 3) "2022ko maiatzaren 26an egindako Batzar Nagusiaren ondoren kooperatiban baja eman duten bazkideen ekarpenak eta Kontseilu Errektoreak 2023ko maiatzaren 18ra arte adostu dituenak itzultzea ez erabakitzea, aurreko paragrafoan ezarritako zenbatekoaren gainerako zenbatekoan eta itzulketa-eskaeren zenbateko osora iritsi arte, Estatutu Sozialen 23. artikuluan ezarritakoa aplikatuz.

Lan-bazkide berrien nahitaezko ekarpenak eguneratzea.

Lan-bazkideen Ekarpenak eguneratzea onartu da. Hala, Sarrerako Kuota gisa **2.399,48 euroko** kopurua eta Kapital Sozialerako Nahitaezko Ekarpen gisa **9.597,90 euroko** kopurua ezarri dira. Beraz, 2023ko ekainaren 1etik aurrera bazkidegai gisa sartzen diren bazkideek jarri beharreko Nahitaezko Ekarpen Osoa **11.997,37 eurokoa** izango da.

Eguneratze hori erabaki honen bidez onartu da:

ERABAKIA:

Bakarra. - "Lan-bazkideen Ekarpenak eguneratzea, Sarrerako Kuota gisa 2.399,48 euroko kopurua eta Kapital Sozialerako Nahitaezko Ekarpen gisa 9.597,90 euroko kopurua ezarriz, eta, beraz, 2023ko uztailearen 1etik aurrerako alta-datarekin bazkidegai gisa sartzen diren bazkideek jarri beharreko Nahitaezko Ekarpen Osoa 11.997,37 eurokoa izango da."

Funts Propio diren EMFEen ordainketa

2007an jaulkitako Mendeko Finantza Ekarpenak dira. Aurten, 2024ko ekitaldirako EMFE horien ordainketa onartu da, eta 2025eko urtarrilaren 31n abonatu dira, erabaki hau onartu ondoren:

ERABAKIA:

Bakarra. - "2007an jaulki ziren eta Funts Propioen parte diren Mendeko Finantza Ekarpenen 2024ko ekitaldiari dagokion ordainketa onartzea. Ordainketa horren interes nominala eta zenbateko gordina jaulkipen-baldintzetan ezarritakoaren arabera kalkulatu beharko dira, eta 2025eko urtarrilaren 31n abonatu da".

Errekurtso Batzordea berritzea.

Egindako bozketaren ondorioz, bazkide hauek izendatu dira Errekurtso Batzorderako, estatutuetan ezarritako gehieneko bi urteko eperako:

<i>Bazkide kontsumitzaileak</i> <i>Personas socias de Consumo</i>	<i>Lan-bazkideak</i> <i>Personas Socias de Trabajo.</i>
<i>Titularra/Titular</i>	<i>Titularra/Titular</i>
<i>Belen Varela Lodeiro</i>	<i>Araceli Fernández Martínez</i>
<i>Ordezkoa/Suplente</i>	<i>Ordezkoa/Suplente</i>
<i>Ibon Artero Intxausti</i>	<i>M^a Isabel Oliva Gamito</i>

Jagoletza Batzordea berritzea.

Egindako bozketaren ondorioz, bazkide hauek izendatu dira Jagoletza Batzorderako, estatuetan ezarritako gehieneko lau urteko eperako:

Bazkide kontsumitzaileak Personas socias de Consumo	Lan-bazkideak Personas Socias de Trabajo.
<i>Titularra/Titular</i>	<i>Titularra/Titular</i>
Sara Galino Calderon Lurdes Arrizabalaga Calvar	Nerea Albizuri Uriguen
<i>Ordezkoa/Suplente</i>	<i>Ordezkoa/Suplente</i>
Elixabete Fernandez Caballero	Oscar Egurrola Mendiola

Kontseilu Soziala berritzea.

Lan-bazkide guztien artean bi itzuliko ohiko bozketaren prozesua egin ondoren eta egindako bozketen arabera Kontseilu Errektoreak hautagaitzak antolatu ondoren, boto gehien jaso dituzten hautagaitzak titular gisa agertuko dira, eta emaitzetan hurrengoak geratu direnak ordezko gisa.

Batzar Nagusiak zerrenda bakarra berretsi du, eta, beraz, hauek izendatu ditu Kontseilu Sozialeko kide hurrengo lau urteetarako:

Zona k	TITULARRA		ORDEZKOA	
	IZENA	ZENTROA	IZENA	ZENTROA
1	Juan Antonio Torices Juaristi	Berangoko Eroski	Rosana Daz Rodriguez	Leioako Eroski
2	Emilia Cruz Sanchez	Eroski Max Center	Sigrid Setien Nunez	Zallako Eroski
3	Lorenza Sanchez Jimenez	C. Beato Tomas	Denise Moran Velez	C. Fournier
4	Sonia Garca Raposo	C. Azpeitia	Carmen Taboada Freijedo	C. Aretxabaleta
5	Alberto Ferrer Iriguibel	Eroski Iruna	Itziar Carroza Sanz	C. Txantrea
6	Onintze Gutierrez Cubo	C. Tellagorri	Miren Maite Larrazabal Orue	C. Puente La Baskonia
7	Mara Otermin Elizalde	C. Gros	Miren Nagore Gordoia Iriarte	C. Jolastokieta
8	Roberto Hernandez Martinez	Zornotzako galkorrak	Jos Luis Oscoz Elexpe	SIEC eta UA zerbitzuak